Billelabeitia, Miren

■ ***Haurrentzako euskal poesiaren antologia***

Ilustratzailea: Mikel Valverde

Itzultzailea: Jon Kortazar

Etxebarri (Bizkaia): Zubia, 2004 (Haur literatura)

ISBN 84-8147-763-X

Casalderrey, Fina

■ ***Ni ni naiz***

Ilustratzailea: Josep Vicó

Donostia: Erein, 2004 (Letra magikoa)

ISBN 84-9746-156-8

Fernández Paz, Agustín

■ ***Laura eta saguak***

Ilustratzailea: Rocío del Noral

Donostia: Erein, 2004 (Letra magikoa)

ISBN 84-9746-158-4

Fernández Paz, Agustín

■ ***Rakel beldur da***

Ilustratzailea: Marina Seoane

Donostia: Erein (Letra magikoa)

ISBN 84-9746-171-1

Gregori, Josep

■ ***Sorgin txoraa***

Ilustratzailea: Avi

Donostia: Erein, 2004 (Letra magikoa)

ISBN 84-9746-169-X

Igerabide, Juan Kruz

■ ***Jonasek arazo potolo bat du***

Ilustratzailea: Mikel Valverde

Bilbo: Aizkorri, 2004 (Mendi sorgindua)

ISBN 84-8263-345-7

Janer Manila, Gabriel

■ ***Zaldia***

Ilustratzailea: Gloria Celma

Donostia: Erein, 2004 (Letra magikoa)

ISBN 84-9746-161-4

Kazabon, Antton

■ ***Armiarma zuhaitzean***

Ilustratzailea: Iván Estévez

Bilbo: Aizkorri, 2004 (Mendi sorgindua)

ISBN 84-8263-347-3

Landa, Mariasun

■ ***Inurri bitxia***

Ilustratzailea: Pep eta Marc Brocal

Donostia: Erein, 2004 (Letra magikoa)

ISBN 84-9746-162-2

Lecaye, Olga

■ ***Sagu txiki***

Itzultzailea: Joxan Ormazabal

Donostia: Ttartalo, 2004

ISBN 84-8091-929-9

López Gaseni, Manu

■ ***Semaforoko ipuina***

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Bilbo: Aizkorri, 2004 (Mendi sorgindua)

ISBN 84-8263-346-5

Lluch, Enric

■ ***Igela***

Ilustratzailea: Gerard Miquel

Donostia: Erein, 2004 (Letra magikoa)

ISBN 84-9746-163-0

Lluch, Enric

■ ***Rosaren amona***

Ilustratzailea: Cristina Durán

Donostia: Erein, 2004 (Letra magikoa)

ISBN 84-9746-172-X

Nado, Víctor

■ ***Lepoko berdea***

Ilustratzailea: Margarita Menéndez

Donostia: Erein, 2004 (Letra magikoa)

ISBN 84-9746-165-7

Olaso, Xabier

■ ***Pupuan trapua***

Iruña: Pamiela, 2004 (Haur literatura)
ISBN 84-7681-409-7

Orlev, Uri

■ ***Lehoia eta Peru***

Ilustratzailea: Jacky Gleich
Itzultzailea: Peru Erroteta
Donostia: Hiria, 2004 (Haurren aurrenak)
ISBN 84-9797-041-1

Orlev, Uri

■ ***Peruk ez du burua garbitu nahi***

Ilustratzailea: Jacky Gleich
Itzultzailea: Ane Erroteta
Donostia: Hiria, 2004 (Haurren aurrenak)
ISBN 84-9797-042-X

Soler, Teresa

■ ***Pirata***

Ilustratzailea: Esperança Martínez
Donostia: Erein, 2004 (Letra magikoa)
ISBN 84-9746-167-3

Urkiza, Ana

■ ***Amak plastakoa eman dit***

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena
Bilbo: Aizkorri, 2004 (Mendi sorgindua)
ISBN 84-8263-343-0

Vadillo, Goretti

■ ***Jon eta Noj galaxia eta mundua***

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena
Donostia: Elkarlanean, 2004 (Kuku)
ISBN 84-9783-187-X

8 urtetik aurrera

Arana, Aitor

■ ***Hilerriko mamuak***

Ilustratzailea: Aitziber Alonso
Euba (Bizkaia): Ibaizabal, 2004 (Matxinsalto)
ISBN 84-8325-815-3

Aristi, Pako

■ ***Nemesioren elefantea***

Ilustratzailea: Jokin Larrea
Donostia: Elkar, 2004 (Kuku)
ISBN 84-9783-179-9

Arrieta Malaxetxebarria, Yolanda

■ ***Groau!***

Ilustratzailea: Alex Orbe
Bilbo: Aizkorri, 2004 (Mendi sorgindua)
ISBN 84-8263-348-1
-ANTZERKIA-

Calleja, Seve

■ ***Elurra ibarrean***

Ilustratzailea: Aranzazu Calleja
Itzultzailea: Begoña Montorio
Bilbao: Desclée de Brouwer, 2004
(Ipotxak eta erraldoiak)
ISBN 84-330-1874-4

Carranza, Maite

■ ***Pirata maltzurren ipuinak***

Ilustratzailea: Margarita Menéndez
Itzultzailea: Mixel Murua
Donostia: Ttartalo, 2004
ISBN: 84-8091-938-8

Carroll, Lewis (1832-1898)

■ ***Alizia haurrentzat (The nursery Alice)***

Ilustratzailea: John Tenniel
Edizioa: Manu López Gaseni
Iruña : Pamiela, 2004 (Haur literatura)
ISBN 84-7681-407-0

Desclot, Miquel

■ ***Jo musika, jo!***

Ilustratzailea: Fina Rifà
Itzultzailea: Juan Kruz Igerabide
Donostia: Elkar, 2004 (Xaguxar)
ISBN 84-9783-148-9

Franko, Maite

■ ***Ixone isilik***

Ilustratzailea: Lorena Martínez
Bilbo: Aizkorri, 2004 (Mendi sorgindua)
ISBN 84-8263-344-9

Genua, Enkarni

■ **Zatoz lehenbailehen!**

Ilustratzailea: Jesús Lucas
Donostia: Erein, 2004 (Bioleta)
ISBN 84-9746-146-0

Igerabide, Juan Kruz

■ **Munduko ibaien poemak**

Ilustratzailea: Lorena Martínez Oronoz
Donostia: Elkar, 2004 (Xaguxar)
ISBN 84-9783-185-3

Igerabide, Juan Kruz

■ **Sugegorria**

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena
Donostia: Elkar, 2004 (Batela)
ISBN 84-9783-147-0

Iturbe, Arantxa

■ **Bi ipotx gure etxeko sofan**

Ilustratzailea: Jon Zabaleta
Donostia: Elkarlanean, 2004 (Kuku)
ISBN: 84-9783-143-8

Juaristi, Felipe

■ **Zezena eta mutila**

Ilustratzailea: Enrique Morente
Bilbao: Desclée de Brouwer, 2004
(Ipotxak eta erraldoiak)
ISBN 84-330-1872-8

Kazabon, Antton

■ **Azkeneko txantxana**

Ilustratzailea: Iñaki Garmendia
Euba (Bizkaia): Ibaizabal, 2004 (Matxinsalto)
ISBN 84-8325-816-1

Neira Cruz, Xosé A

■ **Alaba adoptatua naiz eta zer?**

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena
Itzultzailea: Mitxel Murua
Donostia: Elkar, 2004 (Eta zer?)
ISBN: 84-9783-146-2

Neto, Pedro

■ **Shanba: Angolako ipuinak**

Ilustratzailea: Antton Olano
Itzultzailea: Julian eta Jose A. Tellaetxe
Bilbao: Desclée de Brouwer, 2004
(Ipotxak eta erraldoiak)
ISBN 84-330-1875-2

Olaizola, Jesus Mari, Txiliku

■ **Jokin Galtxagorri**

Ilustratzailea: Mattin

Donostia: Elkarlanean, 2004 (Xaguxar)

ISBN 84-9783-184-5

Ormazabal, Joxantonio

■ **Aitona parapentean**

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Donostia: Elkarlanean, 2004 (Kuku)

ISBN 84-9783-088-1

Uribe, Kirmen

■ **Ez naiz ilehoria**

Ilustratzailea: Mikel Valverde

Donostia: Elkar, 2004 (Eta zer?)

ISBN: 84-9783-154-3

Wölfel, Ursula

■ **28 ipuin barre egiteko**

Ilustratzailea: Bettina Wölfel

Irun: Alberdania, 2004 (Osinberde)

ISBN 84-96310-16-7

Zubizarreta, Patxi

■ **Atxiki sekretua: sorginaren eskuliburua**

Marrazkiak: Elena Odriozola

Donostia: Elkarlanean, 2004 (Dona dona)

ISBN 84-9783-170-5

10 urtetik aurrera

Bordons, Paloma

■ **Ustez aitona**

Ilustratzailea: Francesc Rovira

Itzultzailea: Idoia Gillenea Mujika

Sondika (Bizkaia): Giltza, 2004 (Tukan)

ISBN: 84-8118-836-0

Calleja, Seve...[et.al.]

■ **Azala beltz zerua urdin: Afrikako kondairak**

Itzultzailea: Antton Olano

Donostia: Elkarlanean, 2004 (kondairak)

ISBN 84-9783-108-X

Calleja, Seve (edizioa)

■ **Xerezade: mila gau eta bat gehiago**

Itzultzailea: Antton Olano

Bilbao: Desclée de Brouwer, 2004

(Ipotxak eta erraldoiak)

ISBN 84-330-1879-5

Gaiman, Neil

■ **Otsoak hormetan**

Ilustratzailea: Dave Mckean

Itzultzailea: Joxe Rojas

Donostia: Astiberri, 2004

ISBN 84-95825-78-3

Inongo Vi Makomè

■ **Maleren bidaia**

Ilustratzailea: Inma Mendiola

Itzultzailea: Lurdes Auzmendi

Bilbao: Desclée de Brouwer, 2004

(Ipotxak eta erraldoiak)

ISBN 84-330-1878-7

Josep-Francesc Delgado...[et.al.]

■ **Ketzal txoria: Hego Amerikako kondairak**

Itzultzailea: Antton Olano

Donostia: Elkarlanean, 2004 (kondairak)

ISBN 84-9783-107-1

Lindo, Elvira

■ **Manolitoren sekretua**

Ilustratzailea: Emilio Urberuaga

Itzultzailea: Josu Goikoetxea

Etxebarri (Bizkaia): Zubia, 2004

ISBN 84-8147-059-7

Uribe, Kirmen

■ **Garmendia errege**

Ilustratzailea: Mikel Valverde

Donostia: Elkar, 2004 (Garmendia)

ISBN 84-9783-207-8

12 urtetik aurrera

Funke, Cornelia

■ **Lapurren burua**

Itzultzailea: Pello Zabaleta

Donostia: Elkar, 2004 (Elkarlanean)

ISBN 84-9783-063-6

Zabala, Edu

■ ***Inauterietan***

Ilustratzailea: Mikel Campo
Bilbo: Gero-Mensajero, 2004 (Ekilore)
ISBN: 84-271-2628-X

14 urtetik aurrera

Arana, Aitor

■ ***Afrikako semea***

Ilustratzailea: Alberto Campos
Euba (Bizkaia): Ibaizabal, 2004 (Ekin)
ISBN 84-8325-818-8

Arold, Marliese

■ ***Maitasuna besterik ez: Sandrak Meike maite du***

Itzultzailea: Pello Zabaleta
Donostia: Elkar, 2004 (Bihotz taupadak)
ISBN 84-8331-954-3

Bilbao, Begoña

■ ***Palestina, zure mina***

Donostia: Elkarlanean, 2004 (Bizi taupadak)
ISBN 84-9783-174-8

Cillero, Javi

■ ***Esne katilu batean ezkutatu zen neska***

Bilbo: Aizkorri, 2004 (Topaleku)
ISBN 84-8263-418-6

Dueso, Antton

■ ***Bozateko egunkaria***

Itzultzailea: Miel A. Elustondo
Bilbao: Desclée de Brouwer, 2004
(Ipotxak eta erraldoiak)
ISBN 84-330-1880-9

Fernández Paz, Agustín

■ ***Aire beltza***

Itzultzailea: Koldo Izagirre
Donostia: Elkar, 2004 (Ixu taupadak)
ISBN: 84-9783-083-0

Kazabon, Antton

■ ***Pirtzina zilborrean***

Donostia: Elkarlanean, 2004 (Bihotz taupadak)
ISBN: 84-9783-167-5

Llobet, Gloria

■ **Zugan pentsatuko dut**

Itzultzailea: Antton Olano

Donostia: Elkar, 2004 (Bihotz taupadak)

ISBN: 84-9783-101-2

Orueta Iturralde, Josetxo

■ **Ortziren hortza**

Ilustratzailea: Joxean Sagastizabal

Iruña: Pamiela, 2004 (Gazte literatura)

ISBN 84-7681-429-1

Zabala, Edu

■ **Ezka**

Bilbo: Gero-Mensajero, 2004 (Ekilore)

ISBN 84-271-2654-9

16 urtetik aurrera

Anso, Martin

■ **Elezaharren bidetik**

Irun: Alberdania, 2004 (Ostiral)

ISBN 84-96310-07-8

Aurkenerena Barandiaran, Joseba

■ **Harribeltzeta nire gogoan**

Ilustratzailea: Rafa Serras

Bilbo: Mensajero (Ekilore)

ISBN 84-271-2584-4

LIBURU OSO GOMENDAGARRIAK

2 urtetik aurrera

Ross, Tony

■ **Ahizpa txiki bat nahi dut!**

Itzultzailea: Peru Erroteta

Donostia: Hiria, 2003 (Haurren aurrenak)

ISBN 84-95765-91-8

Marrazki ugari eta letra gutxiko liburu honetako neskatala protagonistak anaia/arreba bat izateko da. Nebarik ez duela nahi dio eta hainbat arrazoi emango ditu : “*usain txarra dute mutilek*”, “*basati hutsak dira mutilak*”, etab. ; baina arrazoi guztiak Tony Rossen ipuinetan ohiko diren pertsonaiek (almiranteak, presidenteak) zentzu barik utziko dituzte. Ospitaletik bueltan etortzerakoan aita-amak, ordea, neba bat duela esango diote. Lehenengo sustua igarota gero bukaera borobila eta zorionsua izango du.

Liburu honetan testua eta irudia elkarren osagarri dira eta aukera ezin hobea ematen dute ikus-metaforak ikusteko eta hauetan trebatzeko. Hau da, orri batean, esatebaterako, neskatalak dio “*usain txarra dute mutilek*”; esaldi hau bere buru gainean isladatzen da bere nebaren hipotetikoaren marrazkiarekin bokadilo batean, non bere nebaren ezaugarri fisikoek nebaren usain txarreko ikus-metaforan bihurtzen dute: buztan eta buru txerriak ditu eta usain txarra dario bere gurputzari. Beraz, ikus-metaforak proposatzen diguna zera da : txerriek usain txarra dutenez, txerri ezaugarriak dituen neba batek ere usain txarra izango du. Tony Rossek hainbat orrietan erabiltzen du teknika hau.

Tony Ross ilustratzaile honen liburu handia dugu. Liburu aproposa semealabak zein ikasleak altzoan harturik ipuinaz gozatzeko.

Ross, Tony

■ ***Txupetea nahi dut!***

Itzultzailea: Ane Erroteta

Donostia: Hiria, 2004 (Haurren aurrenak)

ISBN: 84-9797-015-2

Txupetea nahi dut!, horrela hasten da printzesaren beste abentura bat. Oraingoan printzesari txupetea alde batera uzteko garaia iritsi zaio, baina bera ez dago batere ados. Helduek (almirantea, sukaldaria) mila trikimailu erabiliko dituzte txupetearen ordezkoa bilatzeko, baina gure protagonistak ez du etsiko.

Tony Rossen lana goraipatzekoa da, idazleak trebeki baitaki haurren arazo txikiei aurre egiten eta umore puntu batekin azaltzen. Ez da batere erraza eguneroko gertakizun arrunten aurrean (kasu honetan txupetea alde batera uztea), grazia eta ironiaz beteriko testua lortzea.

Testuari dagokionez oso laburra eta sinplea da: sinplea baina konplexua aldi berean, hain testu txipian ez baita samurra irakurlearen irribarrea lortzea, eta gure ustez, bertan datza Rossen abilezia. Irudiak, aldiz, kolorez jantziak dira eta primeran uztartuak testuarekin. Testu eta marrazkien arteko koordinazioa bikaina da, Rossek berak ilustratu baitu liburu guztia.

Liburu aproposa etxeko txikiei irakurtzeko eta baita lehen irakurleentzat ere.

4 urtetik aurrera

Lionni, Leo

■ **Frederick**

Itzultzailea: Koldo Izagirre
Pontevedra: Kalandraka, 2004
(Amets egiteko liburuak)
ISBN 84-8464-506-1

Frederick, 1963an argitaratua, Leo Lionni-ren (1910-1999) liburu klasiko eta adierazgarria da.

Negua hurbiltzen ari da eta, beraz, sagu-familia batekoek hornigaiak bildu behar dituzte, gero ez badute goseak akabatzea nahi. Gau eta egun dabiltza guztiak lanean, guztiak Frederick izan ezik.

Frederickek eguzki-izpiak biltzen ditu, neguko egun hotz eta ilunetarako; koloreak biltzen ditu negu griserako; hitzak batzen ditu, neguko egun luze eta ugarietan hitzak agortu egingo direlako.

Iritsi da negua eta pixkanaka janaria bukatu egiten da eta hotz egiten du. Orduan, saguak Fredericken hornigaiez oroitzen dira: “Zertan dira zure hornigaiak, Frederick?”.

Frederick-en mezuaren aurrean (“*Oraintxe bidaliko dizkizuet eguzki-izpiak. Ea sentitzen duzuen horien distira urrekara!*”), sagutxoan ondoan, guk ere begiak itxi eta eguzkiaren epeltasuna sentitzen dugu berriro. “*Fredericken ahotsa al da? Magia al da?*”, galdetzen dute saguek. Testuaren ahalmena da.

“*Eta koloreak, zer?*” galdetzen dute irrikaz. Berriro begiak itxi eta Frederickek gari horien arteko mitxoleta gorriez hitz egitean, koloreak ikusten ditugu, geure buru barruan “*margotuta baleude bezain garbi*”.

“*Eta hitzak, Frederick?*” Elipsiak premia adierazten digu, saguen larritasuna. Hitzak behar dituzte, hitzak bizirik irauteko, hitzak bizitzeko.

Testu hau poesiaren indarrari egindako abestia da, bizitzeko eta geure nortasuna aurkitzeko narrazioaz eta arteaz daukagun premiari egindako abestia.

Liburua, formatu handikoa, collage teknika erabiliz ederki irudiztatua, haurrek nahiz nagusiek gozatzeko eta atsegin hartzeko liburu da, amets egiteko eta babestuta sentitzeko liburu.

Lobel, Arnold

■ **Sagu zopa**

Itzultzailea: Koldo Izagirre
Pontevedra: Kalandraka, 2004
(Ametz egiteko liburuak)
ISBN 84-8464-226-7

2004. urtean euskaratu zen lehenengoz 1977an idatziriko liburu hau. Urte dezente pasa diren arren, liburu honekin haur literaturaren historian dagoen harri bitxi bat eskuratu dugu irakurle euskaldunok.

Haur literatur lanetan maisu dugu Arnold Lobel idazle estatubatuarra. Idazlea eta ilustratzailea aldi berean, haur liburuaren ohiko bi esparruak era paregabean landu zituen, eta titulu ahaztezin asko eskaini zituen, esate baterako *Igel eta Ugel, Sagu kontuak...*

Sagu zopan erbinude batek irakurtzen ari den sagu bat harrapatzen du harekin zopa egiteko asmoz. Baina sagu zuhurrak sinistaraziko dio zopa goxo bat egiteko beste osagai batzuk ere ezinbestekoak direla, alegia ipuinak. Ipuinak kontatu ondoren, erbinudea osagaien bila irtengo da; bitartean, saguak ihes egingo du eta irakurtzen ari zen liburuari ekingo dio berriro.

Saguak kontatzen dituen ipuinak itxuraz sinpleak izan arren, apur bat sakonduz gero konturatuko gara poesiaz eta filosofiaz beterik daudela. “Bi harri handi” ipuinean, adibidez, zoriontasuna zeren menpe egon daitekeen ikusiko dugu.

Ahozko tradizioetik edaten duten ipuin hauetan, gai unibertsalak jorratzen dira. Edonon eta edonoiz irakurtzeko balio duten istorioak dira, baina, liburu onekin gertatzen den bezala, irakurketa maila ezberdinak eskaintzen dituzte eta irakurle bakoitzaren ezaugarrietara eta ikuspuntura egokitzen dira.

Ipuin motzak eta ilustrazio goxoak bat eginik, txikienei kontatzeko atseginak eta helduek gozatzeko are atseginagoak.

Ventura, Antonio

■ ***Bi otso zuri***

Ilustratzailea: Teresa Novoa

Itzultzailea: Juan Kruz Igerabide

Bilbo: Ibaizabal, 2004

ISBN 84-8325-771-8

Bi otso baso elurtu eta bakarti bat zeharkatzen ari dira. Bidean otseme zauritu batekin eta bere semearekin topo egiten duten arte. Hortik aurrera, laurek elkarrekin jarraituko dute bidea.

Horrela esanda badirudi ez dela ezer kontatzen, ez dagoela ezer... Baina Antonio Venturak idatzi, Juan Kruz Igerabidek itzuli eta Teresa Novoak marraztutako ipuin zoragarri honetan hitz gutxitan zirrara aunitz jasoko ditugu.

Marrazkiak lagun, bakardadea, isiltasuna, elur zuriaren hotza eta gauaren arrastoa bezalako sentsazioak hezurretaraino iritsiko zaizkigu eta kolorearen erabilpenak (zuriak, grisak) eta perspektibak... lagunduko digute deskubritzen irudiak testua erabat indartzen duela.

Gainera itxuraz hain samur eta sinple den kontaketa, misterioa eta emozioa gordeko du bukaeraraino.

Esan bezala, album laburra eta zaindua, kutsu poetiko nabaria duena batez ere marrazkiaren eraginez. Eta atsegina haurrak zein helduak elkarrekin konpartitzeko.

6 urtetik aurrera

Añorga, Pello Mari

■ **Haur zeru lurterra**

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Donostia: Elkarlanean, 2004 (Birundan)

ISBN 84-9783-117-9

Elkar-eko Birunda bildumako hirugarren alea, eta bertan Pello Añorgaren lan bikaina dago testuan eta Jokin Mitxelenarena irudietan.

Poesia ala narrazioa da? Hori da liburuaren lehenengo irakurraldian sortzen den galdera. Añorgak “prosa poetikoa” erabili du istorio sakon, xume eta ederra sortzeko, hitzak pixkanaka bizia hartuz doazelarik.

Etengabeko errepikapenek erritmo pausatua ematen diote testuari, baita gozoa ere, eta musikaltasun hau areagotu egiten da testua ozen irakurtzen bada.

Testuak eta irudiek bat egiten dute tonu urdinxketan, sinbiosi biribila lortuz. Natura, maitasuna, bizi berri baten jaiotza eta alaitasunaren eta bizi-indarraren lehertzea tonu gorrixka eta horietan adierazten dira, zuria eta beltza elkartzetik sortuak.

Liburu ederra da, irakurtzeko nahiz kontatzeko. Adin eta kultura guztien gainera, maitasunaren indar sortzaileari buruzko istorioa da, haurren bihotzera nahiz geurera iristen dena.

Istoriu unibertsala da, sorkuntza eta jaiotzari buruzko istorio eta mitoen ildokoa, denboran iraunkorra eta liburu eder batean kontatua.

Smet, Marian de

■ **Komun barruan**

Ilustratzailea: Marja Meijer

Itzultzailea: Peru Euba

Donostia: Hiria, 2004 (Haurren aurrenak)

ISBN: 84-95421-35-6

Ane eta bere ama liburutegira joan dira. Beti bezala, amak denbora asko behar du libururen bat aukeratzeko eta Ane, bitartean, komunera doa. Komuneko atea barrutik ixten du eta irtetera doanean konturatzen da atea ezin dela ireki. Hemen hasten dira Aneren buruhaustek.

Liburuan islatzen den egoera nahiko ohikoa eta, aldi berean, larria izan daiteke. Baina gertaera hau liburutegi baten kokatzea eta protagonistak haurrak izatea leundu eta gozotu egiten du egoera. Gainera, liburu bat estuasun batean, lagungarri izan daitekeela ere erakusten digu idazleak.

Bestalde, istorioak jakin-mina pizten du irakurleengan eta intriga puntu hori amaieraraino mantentzen du. Nola irtengo dira komunitik?

Aldi berean, Marja Maijerren ilustrazioak adierazkortasun handikoak dira: biziak eta umorez beterikoak, komunaren handitasuna eta haurren txikitasuna azpimarratu nahirik. Protagonisten aurpegi esanguratsuak oso lagungarriak dira egoera desberdinak adierazteko.

Esan beharra dago edizioak akats bat duela: istorioaren azkeneko irudiaren aurretik sail bereko beste tituluaren zerrenda agertzen da; detaile hau, gure ustez, ez da aproposena edizio zaindu batetarako

Hala ere, istorioa polita eta dibertigarria da eta oso gustura irakurtzen den liburu baten aurrean gaude, edonori irribarrea aterako diona.

Atxaga, Bernardo

■ ***Xola eta Angelito***

Ilustratzailea: Mikel Valverde

Donostia: Erein, 2004 (Holaxe bizi da Xola)

ISBN 84-9746-213-0

Xola txakurraren hirugarren istorioa dakargu Bernardo Atxagak "Holaxe bizi da Xola" bilduman jasota.

Oraingo honetan, Grogoren artzain lagun baten etxera oporretan joango da bikotea udara partean. Xolak baserrian familikide bat aurkituko du, Angelito, baserri giroan hezitako beste txakur bat. Iritsi bezain pronto, Xolak antzemango du Angelitok arazoak dituela.

Xola eta Angelitoren artean sortuko den harremana da ipuin honen ardatza. Angelitok xagu batekin duen arazoa konpontzen saiatuko da Xola eta horrek bi txakurren arteko munduak kontrajarriko ditu, baserri giroa batetik, eta kaleko giroa, bestetik. Bukaeran, hala ere, txakurren adiskidantza areagotzen den heinean, ikusiko dugu bien arteko ezberdintasunak ere gutxituz joango direla.

Atxarengan oso ohiko dugun umorea nagusi dugu kontakizun honetan eta irakurketa dibertigarria eskaintzen digu dudarik gabe. Horren harira, asko eskertzen da berriro ere Mikel Valverde marrazkilariaren lana, oso esanguratsua izateaz gain, guztiz bat datorrelako Atxagaren testuarekin.

Gavaldá, Anna

■ **35 kilo esperantza**

Itzultzailea: Jesus Mari Mendizabal, "Bizargorri"

Irun: Alberdania (Osinberde)

ISBN 84-96310-08-6

Gorrotu dut eskola.
Beste ezer baino gorrotuago munduan.
Eta hori baino gehiago, gainera...
Bizitza izorratzen dit.

Horrela hasten da lehengo pertsonan idatzitako narrazio hau. Pertsonaia, Gregoire, krisialdi serioa bizi duen bikote baten ume bakarra da. Mutikoak eskola gorrotatzen du eta horrek, eskola gaur egun derrigorrezkoa izanik, bizitza oso zaila egiten dio. Eta non aurkitzen du mutilak bizi-poza? Aitonaren ondoan, aitonak erakutsi dizkion esku lanetan (aroztegia, elektrizitatea, etab.) eta hark duen txabola gunean. Mutilak izugarrizko bidea egin behar du bere ipar propioaren atzetik joateko eta askatasuna garatzeko. Testuak irakurlea hunkitu egiten du: mutikoarekin identifikarazten du, harekiko sinpatia sakona sentiarazten du.

Hainbat gai inferitzen dira irakurketan: eskola instituzioaren mugak, irakasle gutxi batzuen afektuaren garrantzia, maitasunaren askatasuna (maitasuna oparia da eta inoiz ezin da erosi), umeen pena sakonak, nagusien funtzio garrantzitsua bizitzan, bakoitzaren bizitza-ildoaren garrantzia, etab. Narrazioa oso intimista da, baina, aldi berean, gure gizartearen irizpide batzuen denuntzia bihurtzen da, eta ezberdinen eskubidea aldarrikatzen du. Narrazioaren benetako ardatza bizitzaren zentzua da.

Oso erraz irakurtzen den testua da, esaldi laburrak eta elkarrizketa ugari dauzka eta. Irakurleek oro, gazte edo heldu izan, asko disfruta dezakete gogoeta hauekin, bai eta barre eta negar egiteko emozioak aurkitu ere.

Rowling, J.K

■ **Harry Potter eta Fenixaren Ordena**

Itzultzailea: Iñaki Mendiguren

Donostia: Elkar, 2004 (Salamandra)

ISBN 84-9783-190-X

Harry Potter eta Fenixaren ordena, sail honetako bosgarren liburua dugu, bertan pertsonaiak eta testu ingurua aldatu ez diren arren, Harry-ren heldutasunaren garapenean murgildu eta emozioa, misterioa, zirrara, lilura, suspensea, sekretua eta magia bizitzeko aukeraz goza genezake.

Liburu honetan narratzaileak pertsonai nagusia udaldi luzearen amaieran kokatzen du eta, zoritxarrez, depresioaren sentipen ilunak bere barne muinetan sumatzen ditu. Jakin nahi du zergatik bere lagun minak Ron eta Hermione isil gordeka ibili zaizkion uda osoan eta Sirius bere aita-pontekoak ez dion bidali inolako albisterik.

Bere itxaropen osoa, oporrak amaitu eta Hogwartzko Azti eta Sorgin Eskolarako itzulerara atxikita dago.

Etsipen sentipenak jota aurkitzen delarik, udako gau baten *Dementorrek* erasotzen dute Harry. Azti gazteak, eskolatik at magia egiteko debekua hautsi eta *Expecto Patronum* sorginkeriaz *Dementorrek* suntsitzen ditu, Hogwartzko Azti eta Sorgin Eskolara itzultzeko aukera arrisku bizian jarriz.

J.K. Rowling-ek, aurreko liburu-etako dinamika eta estilo bera erabili ditu; hau da, istorioan zehar arazoak planteatu eta aldi berean aztarnak uzten ditu, ondoren guztia elkarrekin kateatuz amaiera borobila eta zoriontsua emanez.

Elementu eta estrategia antzerakoak istorio desberdina eta erakargarria eraikitzeko.

Harry Potterren zaleek liburu "erraldoi" hauek jarraitzen dute gustu handiz irakurtzen eta irrikan egongo dira ea noiz Iñaki Mendigurenek euskaratuko duen seigarrena eta, behar bada, hamazazpigarrena, idazleari inspirazioa ez bazaio bukatzen.

Aipagarria, euskararen goxotasuna.

Frank, Anne

■ **Anne Franken egunkaria**

Itzultzailea: Josu Zabaleta

Donostia: Erein, 2004 (Oroimenean barrena)

ISBN 84-9746-219-X

Oraingo honetan, Josu Zabaletaren eskutik, Anne Franken egunkariaren bertsioa osoa irakurtzeko aukera daukagu. Eta, nahiz eta testua oso ezaguna izan, behin eta berriz harritu egiten gaitu 14 urteko neska gazte honek: idazteko era aberatsa, sentimenduen konplexutasuna, errealitatearekiko behaketa eta hausnarketa, barne prozesuak, etab.

Annek alegiazko adiskide bati idazten dizkion gutunek parada ematen diote Amsterdamen bizi den marko estu eta ezkutua deskribatzeko eta, aldi berean, bide zabala eskaintzen diote bere barne mundua adierazteko eta garatzeko.

Anne Franken egunkariak, hainbat ezaugarritan, gogora ekartzen dizkigu Etty Hillesum-en (1943an 29 urteekin Auschwitz-en hil zen) idazki autobiografiko bikainak (1941-1943 bitartekoak): juduen egoera larriak, nazismoaren erruki falta, emakumeen indarra, elkarbizitza-arazoak, sufritzen dutenen begiradaren zorrotzasuna, bihotzaren handitasuna, gizakien inteligentzia, artearen eta izpirituaren tokia, etab. Bi emakume indartsu garai larri eta neketsuetan.

Euskarazko testua oso ondo irakurtzen da, atseginez. Lan ona iruditzen zaigu itzultzaileak egin duena.

Oso ezaguna den gaztelarazko edizio batekin konparatuz¹, pare bat ohar aipatu nahi dugu.

Alde batetik, euskarazko bertsioan, ez dakigu zergatik, zatiren bat falta da (ikus 1942ko azaroak 7). Eta bestetik, sarreraren gainean aipamen bat: euskarazko edizioaren sinadurarik gabeko sarrerak hiru atal dauzka. Lehenak itzultzailearen sarrera pertsonala dirudi; bigarrenak egunkariaren gainean hainbat datu ematen ditu; eta hirugarrena, testua eta argitalpena, aipatutako edizioaren sarreraren itzulpen literala dena. Ez gaitu harritzen klasiko baten sarreran beste testu batzuk erabiltzeak, baina irakurleok, oinarritzko tratu moduan, iturrien aipamena eskatzen dugu.

Hori esanda, oso liburu interesgarria da irakurle gazteentzat eta hunkigarria denontzat. Liburu aproposa giza barneak mugitzeko eta memoria historikoa eta eguneratua lantzeko.

¹ Anna Frank (1999, 8. ed.). El diario de una adolescente. Barcelona: Plaza&Janes.



HUMANITATEA,
EFICIENȚA ȘI INTELIGENȚA
SOCIETĂȚII

THE LEAD IN
HUMANITIES &
SCIENCE OF THE FUTURE